

BALOREZKO PROPOSAMENAK


Aldez aurretik, argi utziko dugu gure helburu nagusia ez dela enpresarekin irabazi ekonomikoak sortzea, gure helburu nagusia, naturari laguntzea izango da. Horrela, naturari eta pertsoneri esku bat luzatuko diegu baina, batez ere enpresei beste eredu ekonomiko bat posible dela erakutsiko diegu, ekonomia zirkularraren bidez, baliabide natural gutxiago kontsumitzen direlako. Horretarako, Ekonomia-zirkularraren parte izango gara eta batez ere telefonia enpresei (hainbat parametro betetzen dutenei) bideratutako zerbitzu bat eskainiko dugu. Hau da, konponketa eta mantenua hain zuzen ere. Beraiek saltzen dituzten produktuak berriro enpresara bueltatzean, akatsak dauden aztertuko dugu, eta horrelakorik egotekotan, horiek konpondu eta hauei eman behar zaien mantenu eta kalitate kontrol egokiak egingo dizkiegu. Horretarako pieza berriak jarri, aldatu, etab. egingo ditugu. Hori egindakoa, enpresari (gure bezeroari) bueltatuko dizkiogu, guk konpondutako produktu horiek merkatuan jarrai dezaten. Horrela ekonomia zirkularraren fluxua jarraituko genuke. telefonia enpresak ez direnak zerbitzua ekoiztu ahaliko dute ere, baina, parametroak beraiekin adostu beharko genituzke.

Horrelako lanak egiten dituzten hainbat elkarte edota enpresak badaude (Ikea), baina, ez dute halako zerbitzurik ematen. Gainera ez dugu bilatu telefonia enpresei horrelako zerbitzurik eman edo bideratzen dieten enpresa edo elkarerik, beraz, kanpo honetan zerbitzu berriztagarri bat eskainiko genuke.

Gure helburu nagusia naturari laguntzea da, beraz horrelako proiektu bat kontratatzen duen enpresari fama ona emango lioke eta ondorioz gure status-ak gora egingo luke. Hauei zerbitzu ekologiko bat eskainiko genieke eta oso erakargarria izango litzateke haien bezeroentzako eta irudi publiko on bat emango lukete. Enpresa bakoitzarekin tratu batera iritsiko gara, haiek etekin ekonomiko bat ere lortzeko. Bi aldeetatik onurak aterako genituzke

Gainera, beharrezkoak ez ditugun osagaiak berrerabiliko genituzke, beste eskakizun batzuk asetzeko. Beste elkarte batzuekin ere kooperatuko genuke hondakin haiek beste edozertan erabiltzeko. Beraz, gure kabuz edo elkartuta, hondakinak berrerabili egingo genituzke.

Gure zerbitzuaren eskema:



Prezioa, bezero motaren arabera aldatuko da; hau da, honek eskatutako produktuaren eta kantitatearen arabera. Enpresak manufacturatzten dituen produktuen arabera (telefonía enpresa edo dena delakoa) eta haien eskarien

EKOZIR

arabera (geroz eta produktu gehiago, prezioa proportzionalki handiagoa) jarriko ditugu prezioak. Telefonía enpresak baldin badira zehaztutako 3 prezio izango ditugu: 50 telefono mugikorren mantenu edo konpontzeengandik , 300 euro, 100 telefonoengatik 600 euro, eta hortik aurrera prezioa proportzionalki igoko da eskariaren arabera

Kanal mota enpresa bakoitzarekin zehaztuko dugu, eta haien eskariaren arabera guk eramango diogu eta bestela garraio enpresa bat kontratatuko dugu.